

GIZA TALDEA

2019ko ekitaldia bukatutakoan, Iruñerriko Mankomunitateak 491 langile zituen, hau da, langileen kopurua %1,45 handitu zen. Gure erakundeko langileak 12 lan-zentrotan aritzen dira lanean, Iruñerriko Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuek instalazioak eremu geografiko jakin batzuetan kokatzea eskatzen dutelako.

Lantokia	Jarduera	Pertsona-kopurua									
		2015		2016		2017		2018		2019	
Sexua		G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Bulegoak											
Chinchilla Jeneralaren kalea, 7. Iruñea Imaz Anaïen kalea, 1. Iruñea	Zerbitzu zentralak eta instituzionalak	87	74	90	71	92	75	95	74	99	76
Herritarren Arretarako Zerbitzua											
Navas de Tolosa kalea, 29. Iruñea	Bezeroei arreta ematea telefonoz, aurrez aurre eta idatziz	6	23	4	27	4	26	3	27	3	25
Edateko uren araztegiak											
Urtasun, Egillor eta Tiebas	Eugiko urtegiko, Artetako iturburuko eta Itoiz-Nafarroako Ubideko ura tratatu eta edateko on bihurtzea	45	6	43	8	42	6	45	7	42	7
Sare eta instalazioen mantentze-lanen tailerra											
Agustindarren industrialdea. Iruñea	Ura banatzeko sareen eta instalazioen mantentze-lanen zerbitzuak. Biltegia	77	6	74	9	75	8	79	10	89	8
Hondakin Uren Araztegia (HUA)											
Arazuri	Hondakin-uren arazketa	36	16	39	15	38	16	40	16	39	15
Hiri Hondakinak Tratatze Zentroa (HHTZ)											
Gongora	Hiri-hondakinen tratamendua	55	19	59	18	68	17	68	12	67	12
Garbigunea											
Agustindarren industrialdea + Morea merkataritza-zentroa	Etxebizitzetako hondakin berezien bilketa	5	2	5	2	5	3	5	3	6	3
Guztirako partzialak		311	146	314	150	324	151	335	149	345	146
Guztira		457		464		475		484		491	

Kontratatze finko eta mugagabearen politikaren alde egiten du enpresak, plan estrategikoen garapena eraginkorra izan dadin, pertsonak ematen duten ezagutza eta kudeaketarako gaitasuna barne hartuta, baina legeriaren arloko

mugek ezinezkoa egin zuten 2019an aplikatzea. Urtearen bukaeran, langileen %85,547k kontratu finko eta mugagabea zuten (%68,57 gizonak eta %31,43 emakumeak). Dena dela, aldi baterako kontratazioa beharrezkoa da zenbait kasutan, erretiro partzialak eta aurreratuak ordezkatzeko. Gainerako aldi baterako kontratazioak unean uneko beharrei erantzuteko egiten dira, hauei esaterako: absentismoa, proiektu zenbaiten garapena edo lan-eskaera handiak. Irizpide hori aintzat hartuta, langileen %14,46k aldi baterako kontratua zuten (%80,28 gizonak eta %19,72 emakumeak).

Plantillaren osaera, kontratu-motaren arabera

Urtea	2015		2016		2017		2018		2019	
Generoa	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Langile finkoak	280	126	280	125	281	126	279	125	288	132
Aldi baterako langileak	31	20	34	25	43	25	56	24	57	14
Guztira	311	146	314	150	324	151	335	149	345	146

Langileen ezaugarriari dagokienez, %70 gizonak dira eta gainerako %30a emakumeak.

Batez besteko adina 50 urtekoa da eta 17 urteko antzintasuna dute batez beste erakundean. Sexuaren arabera, gizonen kasuan, batez besteko antzintasuna 17 urtekoa da eta batez besteko adina 50 urtekoa. Emakumeen kasuan, batez besteko antzintasuna 18 urtekoa da eta batez besteko adina 48 urtekoa.

Urtea	2015			2016			2017			2018			2019		
Sexua	G	E	Batez beste	G	E	Batez beste	G	E	Batez beste	G	E	Batez beste	G	E	Batez beste
Batez besteko antzintasuna enpresan	18	16	18	18	16	17	19	18	18	17,2	16,9	17,1	16,77	17,97	17,13
batez besteko adina	50	46	48	50	46	49	50	47	49	50,1	47,2	48,6	50,19	48,08	49,56

Plantillaren osaera, talde profesionalaren arabera

SCPSAk hitzarmen kolektiboan 4 talde profesional ditu ezarrita: espezialistak, profesionalak, teknikariak eta tituludunak edo antzekoak.

Urtea	2015		2016		2017		2018		2019	
Sexua	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Espezialista	75	19	81	21	94	21	90	17	92	15
Profesionala	135	73	131	78	129	78	141	75	142	74
Teknikaria	59	25	63	23	61	23	57	28	60	26
Tituluduna edo antzekoa	42	29	39	28	40	29	47	29	51	31
Guztira	311	146	314	150	324	151	335	149	345	146

Langileen kudeaketa administratiboak bermatzen du enpresaren eta langileen arteko harremanak egokitzea legezko eta ohiko araudiari, besteak beste, gai hauetan: kontratazioa, eskubideen eta betebeharren arteko oreka, lanaren banaketa edo honen ordaina... Legearekin bat datorren kudeaketaren aldeko gehieneko begiruneaz gain, beste xede bat daukagu: erakundeko pertsonen gehieneko gogobetetzea lortzea alderdi hauen ezagutzaren eta inplikazioaren bitartez.

Absentismoari buruzko informazioa

	2015	2016	2017	2018	2019

Hitzartutako lanaldi guztiaren gaineko portzentajea	5,96	6,38	6,93	6,53	6,73
Gaixotasunek eta istripuek eragindako portzentajea	4,95	5,40	5,81	5,62	5,76
Haurdunaldiak eta amatasunak eragindako portzentajea	0,39	0,50	0,58	0,28	0,26
Lan-hitzarmeneko baimenek eragindako portzentajea	0,62	0,48	0,54	0,58	0,68
Maiztasuna: kasu-kopurua, batez besteko langile-kopurua kontuan hartuta	3,99	3,95	3,63	2,62	3,26
Iraupena: ordu-kopurua, kasu guztiak kontuan hartuta	23,81	26,37	30,43	39,63	32,88
Lanaldia	1.592	1.592	1.592	1.592	1.592

Aparteko orduei buruzko informazioa

	2015	2016	2017	2018	2019
Aparteko orduak, guztira	444,69	232,87	214,39	363,71	494,10
Aparteko orduen portzentajea, hitzartutako lanaldia kontuan hartuta	0,28	0,15	0,13	0,23	0,31
Aparteko orduak, langileen batezbestekoa kontuan hartuta	0,98	0,50	0,45	0,75	0,99